



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2016/11/08

Aldundiak ia 40 milioigaz bultzatuko ditu 2017an Ermuko saihebidetako eta Autzaganeko obrak

Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapeneko diputatuak 2017an bere sailak izango dauen aurrekontua azaldu dau Batzar Nagusietan. Bertan obra bi azpimarratu behar dira besteen gainera: Ermuko saihebidetako eta Autzaganeko obra. Obra bi horreek hartuko dabe inbertsioen atalaren parte handia, errepideei jagokenez. Bide barri bi horreen “behin betiko bultzadeak” ia 40 milioi euroko gastua hartuko dau, 22,19 milioi Gipuzkoa ondoan dagon udalerriko errepide nazionalerako alternatibea eskintzeko, eta 16,12 milioi Autzaganetik igaroteko saihestuko daben Urdinbidetako tunelak egiteko. Oposizioak egindako galderei erantzunez, azken obra horren bigarren fasea ez dagola datorren urteko aurrekontuetan aurreikusita onartu dau Pradalesek.

Pradalesek zuzentzen dauen aurrekontu osoa 256 milioi eurokoa izango da, hau da, aurreko urtean baino %4,5 gehiago. Aitaturako obra biez aparte Bidesarea Planak hartuko dituan 18,94 milioi euro eta Aldundiaren esku dagon errepide sarea kontserbetako beharretara joango diran 46 milioi euro izango dituen errepidetako azpiegiturak izango daben bultzada garrantzitsuaz gain, Foru Aldundiak ekonomia barrindartzeko eta kalidetetako enplegua sortzeko egingo dauen esfortzua azpimarratu dau Pradalesek.

Errepidetako azpiegiturari eta kudeaketari jagokenez, tarifen sistema integral barria eta AP-8, HSM eta Artxandako tunelak erabilteagaitik hilean gehienez be 30 euroko gastu mugea urtarrilean sartuko dirala indarrean adierazo dau Pradalesek.

Azpimarratu behar diran gainerako puntuaren artean, Aldundiko arduradunak Santo Domingoko Gaineko beharrak amaituko dituan jarduketak (1,5 milioi), Bizkaiko Errepidetako Lurraldeko II. Sektore Planerako (150.000 euro) eta Txirindularientzako bidetarako PTSrako (50.000 euro) laguntza teknikoak, Bizkaiko tuneletan ezarriko diran segurtasuneko neurriak (milioi bat) edo Batzar Nagusien aginduari jarraituz motozaleentzako babeseko sistemak jarten jarraitzea (500.000 euro) aitatu ditu Aldundiko Arduradunak Batzarretako taldeen aurrean Ekonomiako eta Ogasuneko Batzordean. La Arenako zubia konpontzeko beharrei jagokenez, 2,5 milioi euro eroango ditue, eta Derioko lotunea egokitzea 3,64 milioi bideratuko dira.

EKINTZAILTZEA ETA ENPRESEN SUSTAPENA

Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapeneko Sailak enpresen sustapenera eta ekintzailtzeara bideratuko ditu bere aurrekontuko 32.227.700 euro. Arlo horretan azpimarragarria da enpresa sortu barrien alde egingo dan apustua, eta hori, “startup” barritzaileak sortzeko eta garatzeko programen hornidurak izango dauen hazkundean islatuko da, 4,51 milioi euro bideratuko diralako bertara. Gainera, Enpresen haztegien sarerako partideak 1,1 milioi jasoko ditu, eta Seed Capitalen bitartez “startup” eta enpresa txikiak eta ertainak finantzetako 1,25 milioi euro bideratuko dira.

BARRIKUNTZEA, NAZIOARTEKOTZEA ETA TURISMOA



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Aurrekontuak argi eta garbi erakusten dau Bizkaiko enpresa txikiei eta ertainei eta sektore estrategikoei laguntzeko apustua, programa barriak martxan jarriz eta lehiakortasuna sustetako aurrekontuen hornidura handituz. Guztira, barrikuntzari eskinitako atalak 12 milioi euro jasoko ditu.

Barrikuntzen artean, sailak enpresa txikiak eta ertainak bultzatzeko programa barria jarriko da martxan, eta lehen pausuk emoteko programa horrek 4 milioi euroko aurrekontua izango dau. Legealdi honetan argia ikusi dauen beste proiektu garrantzitsu batek, barrikuntzarako enpresen arteko alkarlanari behin betiko bultzadea emoteko martxan jarri dan Elkarlanean programak, 1,2 milioi euro jasoko ditu.

Nazioartekotzearen atalean, 2017an, 4 milioi euroko eragiketak mobiduteko gai izango dan eta abaletan oinarrituta egongo dan ekimena jarriko da martxan alkar bermatzeko erakundeen bitartez. Proiektu barri horrek 100.000 euroko hornidurea izango dau.

Turismoari jagokonez, aurrekontuetan 4,1 milioi euro sartuko dira Bizkaia nazinoartean zabaltzeko eta ezaguna egiteko eta gure lurraldeko turismo industriari laguntzeko. Partida horren barruan, Bizkaia nazinoartean bultzatzea jasoko da, azoken eta ekitaldien bitartez, eta baita lurraldeko eragileakaz batera finkapenerako eta sustapenerako jarduketak (800.000 euroko hornidureagaz), turismoaren industriari laguntzeko programea (500.000 euro) edo BIME sariketaren ospakizuna (550.000) be.

1,1 MILIOI EUROKO AURREZPENA SEGURTASUNEAN ETA GARBIKETAN

2017an bere aurrekontua gehien handituko dauen saila Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako saila izango da. Sail horrek izango dituan 46,64 milioi euroak igaz baino %12,7 gehiago izango dira. Ibone Bengoetxea arduradunak Bizkaiko Batzar Nagusietan gaur emon dauen azalpenean esan dauenez, igoera horren “zergaiti nagusia” Aldundiko foru egoitza guztien garbiketako eta segurtasuneko gastuak zentralizetean dago. Zentralizazio horri esker Aldundiak 1,1 milioi euro aurreztuko ditu.

Barrikuntza nagusien artean, eta 2,24 milioi euroko aurrekontua izango dauen Administrazioa modernizetako programari jagokonez, Bengoetxeak informazioa lantzeko programa barria sortuko dala azpimarratu dau. 905.000 euroko aurrekontua izango dauen programa horren helburua “izaera pertsonaleko datuen segurtasuna eta babesa hobetzea eta Gangurenko artxibategia kudeatzea” da.

Beste barrikuntza bat Suteak itzaltzeko eta Salbamentuko zerbitzuan aurreikusten da. Aldundiak 346.000 euro bideratuko ditu kamioi zisterna barria erostera, eta 100.000 euro Busturialdeko suhiltzaileen parke barriaren eraikuntza lanak hastera.

Tokiko erakundeei emoten jaken aholkularitza programari jagokonez, Aldundiak 2 milioi euroko partideagaz jarraituko dau, Udalek azpiegituretan inbertidu daien, eta beste 750.000 euro bideratuko dira gaiztasun ekonomiko egoeran dagozan udalerrietara. Atal horrek be izango dau barrikuntzea, Bizkaiko udalei aholkularitza juridikoa emoteko datu base barria sortuko da eta.

Foru Aldundiak 2,3 milioi euro bideratuko ditu herritarren partaidetzara eta herritarrakaz izan beharreko hartu emonetara. Partida horren barruan sartzen dira, eskualdeetan mila pertsona



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

ingurugaz egingo diran hamar topaketak. Aldundiak bere gain hartu dauen beste konpromiso bat 2017. urtea gazteriaren urtea bilakatzea da. Bertan sartuko dira Bizkaia Gazte Txartela ekimena eta gazteei zuzendutako beka eskintza “zabalagoa”

INFORMAZINO BATZORDEAK LAESPADAREN AGERRALDIAGAZ AMAITU DIRA

Teresa Laespada enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun diputatu andreak azaldu dauenez, bere sailak 2017an izango dauen aurrekontuaren 56.541.000 euroen bitartez “enplegua, alkartasuna eta bardintasuna” bultzatuko dira. Batzar Nagusien aurrean kontuak azaltzeko egin dauen agerraldian Aldundiko arduradunak azaldu dauenez, diru-sarrera publikoek behera egin daben arren, gastuari apur bat eutsita posible izango da hiru kontzeptu horreen aldeko politikakaz jarraitzea. Dana dala, oposiziotik zalantzan jarri da diputatu andreak esandakoa.

Kopuruen banaketan sartuta, Laespadak esan dauenez, Administrazio Orokorreko Programak 870.000 euroko partidea dau, eta 620.000 euro dagoz erreserbata Aldundiaren Plan Informatikorako. Emakumeari eta Familiari buruzko Programari jagokonez, 6.283.000 euroko inbertsino osoa jasoten dau. Azken programa horrek %0,61eko igoera txikia dauka, aurtengoagaz alderatuta.

Gizarteratze arloko aurrekontua 17.853.000 eurokoa izango da. Zenbateko horren erdia egoitzen sarera bideratuko da, baina partida horrek aurrean baino milioi erdi gutxiago izango dau, Aldundiak eguneko zentroak indartzen zentrauko ditualako bere esfortzuak. Atal horretan, Laespadak, Habitat Bizkaia edo Gohabe (etxe bako pertsonak eta errefuxiatuak) programak indartzeko egingo dan esfortzua azpimarratu dau, ia 2 milioi eurokoa, %62ko igoereagaz. Gainera, oposizinoa nasaitu gura izan dau, beharrezkoa bada, gizarte arloko larrialdietarako laguntzak handitzeko aukerea dagola esanez. Izan be, laguntza horreek murriztu egingo dira, “benetako” eskarira egokitzeke.

Emakumeen eta Gizonen arteko Bardintasuna Sustetako programari jagokonez, aurrekontuaren 862.000 euro hartuko ditu, eta horren barruan, “urtearen hasieran” Bardintasunaren Foru Arau Proiektua aurkeztuko dala azpimarratu dau Laespadak. Bizkaiko indarkeriaren mapea definitzeko “30.000 euro” egongo dirala esan dau. Aitatutako partidei, 6.521.000 euro hartuko dituan Lankidetzari eta Kultur Aniztasunari jagokena gehitu behar jake. Hori dala eta, aurrekontuaren “%0,48ra” helduko da lankidetzaren arloan.

Saileko politika guztien arteko kopuru handiena “kalidadeko enplegua” sustetara egongo da zuzenduta. Horretarako 16.976.000 euro erreserbauko dira, aurrean baino %4,72 gutxiago. Diputatuak, jatsiera hori azaltzeko orduan, datorren urtean Eusko Jaurlaritzak Dema programara 400.000 euro bideratuko dituala esan dau, Aldundiagaz sinatu dauen akordioa dala eta. Gainera, aurrean amaituko da Bizkailaben eta Deustuko Unibersidadearen arteko hitzarmena.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
08/11/2016

La Diputación impulsará en 2017 con casi 40 millones las obras de la variante de Ermua y Autzagane

El diputado de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, ha detallado en las Juntas Generales el desglose del presupuesto de su departamento para 2017. En él, destacan dos obras por encima de todas: la variante de Ermua y las obras de Autzagane que absorberán buena parte del capítulo inversor en materia de carreteras. El “impulso definitivo” a estos dos nuevos viales sumará un gasto conjunto de casi 40 millones de euros, 22,19 millones en ofrecer una alternativa a la N-634 en el municipio que colinda con Gipuzkoa, y 16,12 millones para los túneles de Urdinbide que evitarán el paso por el alto de Autzagane. A preguntas de la oposición, Pradales ha confirmado que la segunda fase de esta última obra no está contemplada en los presupuestos del año próximo.

El presupuesto total del departamento que dirige Pradales ascenderá a 256 millones de euros, lo que supone un incremento del 4,5% respecto a este año. Además del fuerte desarrollo de infraestructuras viarias, en el que destacan, a parte de los dos tajos mencionados, los 18,94 millones para el Plan Bidesarea y los 46 millones de euros para conservar la red foral de carreteras, Pradales ha destacado el esfuerzo que el Gobierno foral hará en materia de recuperación económica y generación de empleo de calidad.

En cuanto a las infraestructuras y gestión de carreteras, Pradales ha subrayado también que "en enero" entrará en vigor el nuevo sistema integral de tarifas y el límite de gasto de 30 euros al mes para el uso de la AP-8, VSM y túneles de Artxanda.

Como otros puntos destacables, el responsable foral ha centrado su exposición presupuestaria ante los grupos junteros en la Comisión de Economía y Hacienda de la Cámara vizcaína en la actuación que completará las obras en el Alto de Santo Domingo (1,5 millones); las asistencias técnicas para el II Plan Territorial Sectorial de Carreteras de Bizkaia (150.000 euros) y para el PTS de Vías Ciclistas (50.000 euros); las medidas de seguridad en los túneles de Bizkaia (1 millón); o la continuación de los sistemas de protección para motoristas (500.000 euros), proyecto este que sigue un mandato de las Juntas Generales. A su vez, las obras de reparación del Puente de La Arena se llevarán 2,5 millones y el acondicionamiento del enlace de Derio absorberán 3,64 millones.

EMPRENDIMIENTO Y PROMOCIÓN EMPRESARIAL

El departamento de Desarrollo Económico y Territorial destinará 32.227.700 euros de su presupuesto a la promoción empresarial y el emprendimiento. Se trata de un ámbito en el que destaca la apuesta por las empresas de nueva creación, lo que se traduce en un incremento de la dotación a los programas de creación y desarrollo de “startups” innovadoras, con 4,51 millones de euros. Además, se eleva a 1,1 millones de euros la partida para la red de incubación de empresas y a 1,25 millones de euros la financiación de “startups” y pymes a través de Seed Capital.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

INNOVACIÓN, INTERNACIONALIZACIÓN Y TURISMO

El presupuesto apuesta, según la Diputación, por apoyar a las pymes de Bizkaia y sus sectores estratégicos con nuevos programas e incrementos de la dotación presupuestaria para fomentar la competitividad. En total, el apartado dedicado a la innovación suma 12 millones de euros.

Como novedades, el departamento pondrá en marcha un nuevo programa de impulso a la competitividad de pymes, que echará a andar con un presupuesto de 4 millones de euros. Y otro proyecto "de calado" que ha visto la luz esta legislatura para dar un impulso definitivo a la cooperación empresarial para la innovación, el programa Elkarlanean: 1,2 millones de euros.

En el capítulo de la internacionalización, en 2017 se pondrá en marcha una iniciativa de avales a través de entidades de garantía recíproca capaces de movilizar operaciones por importe de 4 millones de euros. Este nuevo proyecto se dota con 100.000 euros.

En cuanto al turismo, el proyecto presupuestario incorpora 4,1 millones de euros a la promoción internacional de Bizkaia y apoyo a la industria turística del territorio. Esta partida incluye la promoción internacional de Bizkaia en ferias y eventos, actuaciones de consolidación y promoción junto con agentes del territorio (dotado con 800.000 euros), el programa de apoyo a la industria turística (500.000 euros) o la celebración del certamen BIME (550.000).

AHORRO DE 1,1 MILLONES DE EUROS EN SEGURIDAD Y LIMPIEZA

El departamento que más incrementa porcentualmente su presupuesto en 2017 será Administración Pública y Relaciones Institucionales. Los 46,64 millones euros que manejará este área foral suponen un 12,7% más. Su responsable, Ibone Bengoetxea, en la explicación de las cuentas dadas hoy en las Juntas Generales de Bizkaia, ha justificado este aumento "fundamentalmente" en la centralización de los gastos de limpieza y seguridad de todas las dependencias forales, que permitirá un ahorro de 1,1 millones de euros.

Entre las principales novedades, y en lo que respecta al programa de modernización de la Administración que contará con un presupuesto de 2,24 millones, Bengoetxea ha destacado la creación de un nuevo programa para el tratamiento de la información, dotado con 905.000 euros, que tiene como objetivo "mejorar la seguridad y la protección de datos de carácter personal, y la gestión del archivo de Ganguren".

Otra de las novedades se contempla en el servicio de Extinción de Incendios y Salvamento. La Diputación destinará 346.000 euros para adquirir un nuevo camión cisterna y 100.000 euros para iniciar la construcción del nuevo parque de bomberos de Busturialdea.

En el programa de asesoramiento a entes locales, Diputación mantendrá la partida de 2 millones de euros para que los ayuntamientos inviertan en infraestructuras y habrá otros 750.000 para municipios en dificultades económicas. En este apartado, la novedad será la creación de una nueva base de datos para el asesoramiento jurídico de los ayuntamientos vizcaínos.

Además, la institución foral tendrá 2,3 millones de euros para participación y relaciones con la ciudadanía, en el que se enmarcan los diez encuentros comarcales con un millar de personas.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Otro compromiso foral asumido por la Diputación, será el convertir a 2017 en el año de la juventud. En él se enmarcan las iniciativas de la Bizkaia Gazte Txartela y una oferta de becas “más amplia” para los jóvenes.

LAS COMISIONES INFORMATIVAS FINALIZAN CON LA COMPARECENCIA DE LAESPADA

La diputada de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Teresa Laespada ha explicado que el destino final de los 56.541.000 euros del presupuesto de su departamento para el año 2017 serán “el empleo, la solidaridad y la igualdad”. La responsable foral en su explicación de las cuentas en las Juntas Generales ha asegurado que pese a la bajada de los ingresos públicos, una contención del gasto hará posible el mantenimiento de estas políticas en favor de estos tres conceptos, cosa que han puesto en duda desde la oposición.

Entrando en el desglose de las cifras, Laespada ha indicado que el Programa de Administración General cuenta con una partida de 870.000 euros, mientras que el del Plan Informático Foral tiene reservados 620.000 euros. Por su parte, el Programa de Mujer y Familia recoge en sus cuentas una inversión total de 6.283.000 euros, con una ligera subida del 0,61% respecto del presente ejercicio.

En Inclusión Social, el presupuesto ascenderá a 17.853.000 euros. La mitad de esta cuantía irá destinada a cubrir la red residencial, aunque habrá una disminución de medio millón con respecto a este año debido a que la Diputación centrará sus esfuerzos en potenciar los centros de día. En este apartado, Laespada ha subrayado el esfuerzo, de casi 2 millones de euros, por reforzar los programas Habitat Bizkaia o Goihabe (personas sin hogar y personas refugiadas) con un incremento presupuestario del 62%. Además, ha querido tranquilizar a la oposición al explicar que las ayudas para la emergencia social serán ampliables en caso de necesidad, tras constatar que se reducirán por ajustarse a la demanda "real".

Por su parte, el programa de Promoción de la Igualdad de Mujeres y Hombres alcanzará los 862.000 euros de presupuesto y, en él, Laespada ha destacado la presentación “a principios de año” del Proyecto de Norma Foral de Igualdad. Habrá “30.000 euros” para definir un mapa de la violencia de las mujeres en Bizkaia. A estos, hay que sumar el de Cooperación y Diversidad Cultural, con 6.521.000 euros, con lo que se alcanza un “0,48%” del presupuesto en materia de cooperación.

La mayor cuantía de todas las políticas del departamento irá destinada a fomentar un "empleo de calidad". Se reservarán para ello 16.976.000 euros, que supone un 4,72% menos. La diputada ha justificado esta merma en que el Gobierno vasco aportará el próximo año 400.000 euros a Dema fruto de un acuerdo con la Diputación. Además, finaliza este año el convenio Bizkailab con la Universidad de Deusto.